

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko ekainaren 14an hartutako erabakiaren laburpena. Erabaki horren bidez onartu zen Laudioko merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzu-enpresetan euskarazko errotuluak sustatzeko dirulaguntza deialdia 2024. urterako

BDNS(Identif.): 768999.

Dirulaguntza orokorre bidezko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalan aurki daiteke. Dirulaguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/768999>).

Lehenengoa. Onuradunak

Laudio udalerrian egoitza edo ordezkariak duten merkataria, ostalari eta zerbitzu enpresa txikiak betiere merkataria, ostalari eta zerbitzu enpresa txikiarentzako udalaren euskara planean parte badira. Pertsona fisikoak zein juridikoak izan ahal izango dira.

Bigarrena. Helburua

Laudioko merkataritza eta ostalaritza-establezimenduei eta zerbitzu-enpresa txikiei dirulaguntzak ematea norgehiagoka-erregimenean, euskara beren negozioen errotulazio-lanetan sar dadin sustatzeko.

Hirugarrena. Ordenantza arautzailea

Deialdi hori Laudio Udalaren Dirulaguntzak arautzen dituen Udal Ordenantzak arautuko du. 2021eko martxoaren 10ean argitaratu zen ALHAOn (28. zk.).

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiaren diru-kopurua 2.500,00 euro da.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea deialdi honen laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da, eta 2024ko azaroaren 6an amaitu.

Laudio, 2024ko ekainaren 14a

Alkate-udalburua
AINIZE GASTAKA MARTÍNEZ